



HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN URTEKO PLANA

2009/10 IKASTURTEA

1. SARRERA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Hezkuntza Ikuskaritzaren bidez gauzaten du ikastetxeen, zerbitzuen eta programen ikuskaritza-prozesua, indarrean dauden arauak betetzen direla bermatu, hezkuntza-komunitateari aholkuak eman eta Euskadiko hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetzeko. Eta hori, hain zuzen, Hezkuntza Ikuskaritzaren jarduera-planen bidez egiten du.

2009/10 ikasturteari dagokion plana, egun indarrean dagoen Hirurteko Planaren baitako bigarrena da. Hori dela eta, indarrean den Hirurteko Planean ezarri diren helburu orokorrei bere horretan eutsi zaie. Ikasturte honetan, helburu hauek izango dute lehentasuna: diagnostiko-ebaluazioak gauzatzea; ebaluazio horiek ekarritako emaitzen arabera, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek gauzatu behar dituzten hobekuntza-planak gainbegiratzea; Ikasleen Eskubideen eta Betebeharren Dekretu berria indarrean sartzearen ondorioz Antolamendu eta Jarduera Araudia (AJA) landu eta aplikatzeko lanean ikastetxe publikoei aholkuak ematea eta nola egiten duten ikuskatzea; eta zuzendaritza-funtzioa ebaluatzea.

Hezkuntza Ikuskaritzak harremanean egon behar du, etenik gabe, ikastetxeetako pertsona bakarreko nahiz taldeko organoekin, eta behar bezala piztu behar du organo horien gogoia, legeek esleitu dizkieten erantzukizunak eta eskumenak eraginkortasunez nahiz autonomiaz bete ditzen. Garrantzi handiena honi emango zaio: ikastetxeetako hezkuntza-, hizkuntza- nahiz curriculum-proiektuak etenik gabe eguneratzeari eta zehazteari, eta ikastetxeek beren antolaketaren eta funtzionamenduaren autoebaluazioa egiteari, curriculum berriak garatzeko eta ikastetxeen kudeaketa nahiz pedagogia-praktika hobetzeko. Beharrezkoa da, halaber, lantalde egonkorrak ez dituzten ikastetxeetako zuzendaritzei eskaintzen zaien aholkularitza-zerbitzua indartzea, talde horien egonkortasuna sendotzeko.

Helburu guztiak egoki bete ahal izateko, funtsezkoa da ikuskariak trebatzeko eta eguneratzeko beharra gogoan hartzea eta bermatzea. Beraz, planaren berezko jarduerekin lotura duten jardueretan edota ikuskarien funtzioak betetzeko interesgarriak izan daitezkeen beste gai batzuekin loturikoetan eguneratu eta trebatu behar dira.

2008-09 ikasturtean, Hezkuntza Ikuskaritzak ISO 9001:2000 egiaztagiria berritu zuen. Horrek, batetik, barne-antolaketa hobetzeko balio izan du, eta, bestetik, ikasturte horretako planean aipatzen diren hobekuntza-alorrak lantzeko. Hona hemen hobekuntza horietako batzuk: zenbait helburu ezartzea, helburu horiek jarraitzea nahiz kontrolatzea ahalbidetzen duten adierazle eta guzti; ikastetxeek ikuskaritzaren urteko planaren eta plan horrek ikastetxeetan izan dezakeen eraginaren berri izatea; datu-baseak edo bestelako aplikazio informatiko batzuk erabiltzea lurraldeko informazioa biltzeko; ikuskarien jardun-irizpideak koordinatzea eta bateratzea; eta erakundeek

emandako trebatze trinkoa, ikuskaritza-lana gauzatzeko hain beharrezkoak diren alderdi juridiko eta administratiboekin lotura duten auzietan, batez ere.

Bestalde, aurreko ikasturtean gertatu bezala, hauen ekarpenak ere hartu dira kontuan urteko plan hau lantzeko: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko zuzendaritzen eta sailburuordetzen eskaerak; Lurralde Arteko Koordinazio Batzordeak Zonalde Burutzekin 2008/09 ikasturtearen amaieran egindako bileran ateratako ondorioak; ikuskaritzaren jardueren hartzaileen gogobetetze-maila neurtzeko inkesten emaitzak; Kalitate Batzordearen proposamenak, UNE-EN ISO 9001:2000 ziurtagiriarekin jarraitzeko; eta 2008/09 ikasturtean Hezkuntza Ikuskaritzari egindako barne- nahiz kanpo-auditorien emaitzak.

2009/10 Urteko Plana atal eta eranskin hauetan egituraturik dago:

- Kalitateari buruzko politika.
- Helburuak.
- Ikuskaritzako prozesuen mapa.
- Azpiprozesuak aplikatzeko zehaztapenak.
- Euskalduntzea eta euskararen normalkuntza.
- Urteko Planaren ebaluazioa.
- Eranskinak:
 - I. eranskina: Ikuskaritzako prozesuen mapa.
 - II. eranskina: Ikuskaritza Planaren azpiprozesuak aplikatzeko zehaztapenak.
 - III. eranskina: Ikuskaritza Planaren helburuak eta adierazleak.
 - IV. eranskina: Prestakuntza Planaren jarduerak.

2. KALITATEARI BURUZKO POLITIKA

Hezkuntza Ikuskaritzaren Kalitateari buruzko Politika UNE-EN ISO 9001:2000 arauaren baldintzetako bat da, eta Lurralde Arteko Koordinazio Batzordeak eta Zonalde Burutzek adostu zuten. Hona hemen ikasturte honetan indarrean egongo den Kalitateari buruzko Politika:

- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Sailburuordetzaren menpeko Hezkuntza Ikuskaritzak (Hezkuntza Ikuskaritza esango diogu hemendik aurrera) uste du bere lana beharrezkoa dela hezkuntza-sistemak, oro har, eta ikastetxeek bereziki, kalitatezko jardunbidea lortzeko.
- Horregatik, premiazkoa da eman zaizkion funtzioak (ebaluazioa, kontrola, aholkularitza eta lankidetzak) betetzeko jarduerak behar bezala kudeatzea, eta halaxe egin beharko du ikuskari bakoitzak eguneroko bere jardunean. Horrela egiten bada, Hezkuntza Ikuskaritzaren jardunbide ona bermatuko da eta hezkuntza-komunitatearen, hezkuntza-administrazioaren nahiz Hezkuntza Ikuskaritzako partaideen gogobetetze-mailarik handiena lortuko da.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren aktibo nagusia bertan aritzen diren langileak dira (ikuskariak eta administrariak). Horrela, Ikuskaritza Nagusia eta Lurralde Burutzak, beren lidergoaz baliatuz eta hierarkiaren, parte-hartzearen, espezializazioaren, profesionaltasunaren, talde-lanaren eta emaitzen ebaluazioaren antolaketa-printzipioei jarraituz, langileak motibaturik eta pozik egon daitezzen ahalegindu eta langile horien garapen pertsonalaren eta profesionalaren alde lan egingo dute.

- Hezkuntza Ikuskaritzak, ikuskaritzaren eredu bat finkatzeko bidean, antolakuntza eraginkorra izateko konpromisoa hartu du. Ereduak ezaugarri hauek izango ditu: Ikuskaritzako profesionalak parte hartuko dute eskaintako jarduera eta zerbitzuen eguneroko kudeaketan; prozesuak etengabeko hobekuntzara bideraturik egongo dira; eta hezkuntza-komunitatea, hezkuntza-administrazioa nahiz Hezkuntza Ikuskaritzaren gogobetetze-maila kudeatuko da.
- Erakundearen helburuak betetzen direla ziurtatzeko asmoz, Hezkuntza Ikuskaritzak kalitatea kudeatzeko sistema ezarri du. Kontuan hartuko ikuskaritzaren jarduera gidatu behar duten estrategiak, alegia:
 - Hezkuntza-komunitateko kide guztiek eta hezkuntza-administrazioaren arduradunek beren jardunetan dituzten beharriari eta itxaropenei erantzuna ematea.
 - Hezkuntza-komunitateko kideen eskaerak arreta handiagoz erantzutea.
 - Hezkuntza Ikuskaritzari eta berezko haren jarduerari dagozkien legezko nahiz arauzko baldintzak betetzea.
 - Ikastetxeetara egiten diren bisiten kalitatea hobetzea.
 - Modu planifikatuan, koordinatuan eta taldean lan egitea, egin beharreko lanaren denbora-banaketa eginez eta ikuskarien artean zuzentasunez banatuz.
 - Planen bidez ikuskaritzako langile guztien etengabeko prestakuntza eta parte-hartze aktiboa sustatzea.
 - Hezkuntza Ikuskaritzaren barne- nahiz kanpo-komunikaziorako kanalak hobetzea.
 - Behar den malgutasunaz jokatzeko, Hezkuntza Ikuskaritzaren jarduerari dagozkien betekizun eta premietara egokitzeko.
 - Ikuskaritzaren funtzionamenduan definitutako prozesuetan izan litezkeen akatsen edo hutsegiteen arrazoiak identifikatzea eta desagerraraztea, prozesuak eraginkorragoak bihurtzeko daitezkeen laguntzeko.
- Kalitate-politika hau erreferentzia egokia da, ikuskaritzaren jardueran nagusi diren estrategiak ezarri eta berrikusteko. Estrategia horiek kalitatearen helburutan gauzatu dira.
- Hezkuntza Ikuskaritzak bide egokiak ezarri ditu langile guztiek politika horren berri izan eta uler dezaten. Horrez gain, bermatzen du sistema berrikustean politika ere berrikusiko dela.

3. HELBURUAK

Hauek dira Urteko Plan honetan jaso diren helburuak:

- Kalitatea Hezkuntzan proiektuan parte hartzen duten ikastetxeak ebaluatzea.
- Zuzendaritza-funtzioa eta irakaskuntza-funtzioa ebaluatzea.
- Ikastetxeak ikuskatzea: ikastetxeek indarrean dauden arauak betetzen dituzten eta Hezkuntza Saileko programak nahiz proiektuak garatzen dituzten egiaztatzea.
- Diagnostiko-ebaluazioak garatzen laguntzea, ikastetxeetako hobekuntza-planak gainbegiratzearen eta urteko proben aplikazioa kontrolatzearen bidez.
- Hezkuntza Saileko beste zerbitzu batzuekin elkarlanean aritzea, ikastetxeetako hezkuntza-, hizkuntza- eta curriculum-proiektuetarako ereduak lantzeko orduan.
- Ikastetxeetan esku hartzea, zuzendariak hautatzeko prozesuetan irakasleek lehen baino neurri handiagoan parte har dezaten.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren hartzaileen beharrak egoki asetzea.
- Ikuskaritzako lurralde-unitateen barne-antolamendua hobetzea.
- Lurraldeko jarduera-planak lantzeko irizpideak bateratzea.
- Hezkuntza-komunitatearen eskubideak eta betebeharrak betetzen direla bermatzea, indarrean dagoen araudiaren arabera: AJA/BA berriak kontrolatzea.
- Hezkuntzako Ikuskaritzaren ziurtagiria UNE-EN ISO 9001:2008 arauaren arabera eguneratzea eta berritzea.
- Ikuskarieren prestakuntza eguneratzea: diagnostiko-ebaluazioa, AJA/BAren kontrola, ikasketa berrien eta haien agiri administratiboan ezarpena, eta prestakuntza juridikoa nahiz administratiboa.
- Euskararen erabilera sustatzea eta ikuskaritzaren jakinarazpenetako nahiz txostenetako euskararen kalitatea hobetzea.
- Ikuskarieren atzerriko hizkuntzako gaitasun-maila handitzen ahalegintzea.

Plan honetan jaso diren helburuak kontrolatzeko eta zaintzeko, III. eranskinean ageri diren jarduerak eta adierazleak erabiliko dira.

4. IKUSKARITZAREN PROZESUEN MAPA

Hezkuntza Ikuskaritzaren 2006/07 ikasturteko prozesuen mapak 2005/08 Hirurteko Plan Nagusian ezarritakoa aldatu zuen, hura UNE-EN ISO 9001:2000 arauaren eskakizunetara egokitzeko. 2007/08 ikasturtean, kanpo-auditoriaren ondorioz, prozesuen mapa hobetu egin zen. Urteko Plan honetako I. eranskinean jaso da prozesuen mapa.

Ikuskaritzarako ezarritako Kalitatea Kudeatzeko Sistemak prozesuen arabeko kudeaketa du xede eta honako egitura honen arabera dago antolatutik:

- Makroprozesuek kalitatea kudeatzeko sistema deskribatzen dute, UNE-EN ISO 9001:2000 araua betetzen dute eta arau horretako kapituluaren arabera antolatu dira.

- **Prozesuak** makroprozesuak arauaren baldintzak betez garatzeko tresnak dira. "Zerbitzuak identifikatzea eta ematea" makroprozesuan, prozesuak ikuskaritzaren jardueren (azpiprozesuen) multzokatzeak dira. Multzo horiek egiteko, ikuskaritzako kontrol-, aholkularitza- eta ebaluazio-irizpide funtzionalei jarraitu zaie, edota beste batzuei: eskariaren jatorria, barne- zein kanpo-bezeroen tipologia, eta abar.
- **Azpiprozesuak** ikuskaritzaren jardueren zehaztapenak dira. Azpiprozesuak 2008/2011 Hirurteko Plan Nagusiaren 4. atalean, Hezkuntza Ikuskaritzako prozesuak izenekoan jaso dira.

Makroprozesuak hauek dira:

- 01 MP.- Estrategia, Planifikazioa eta Antolakuntza.
- 02 MP.- Zerbitzuak identifikatzea eta ematea.
- 03 MP.- Giza baliabideen kudeaketa.
- 04 MP.- Kudeaketa dokumentala.
- 05 MP.- Baliabide materialen kudeaketa.
- 06 MP.- Neurketa, Azterketa eta Hobekuntza.

Makroprozesu bakoitzeko **prozesuak** I. eranskinean, Ikuskaritzako prozesuen mapa izenekoan, zehaztu dira.

Ikuskaritza Nagusia, Lurralde Burutzak, Zonalde Burutzak eta prozesu zein azpiprozesuen arduradunak izango dira liderrak Hezkuntza Ikuskaritzaren prozesuetan nahiz azpiprozesuetan zehaztu diren jarduerak garatzeko lanean.

5. AZPIPROZESUAK APLIKATZEKO ZEHAZTAPENAK

02 MPren barruan dauden jarduerak edo azpiprozesuak dira Urteko Plan honen ardatz nagusia eta, horrez gain, horiek zehazten dute Hezkuntza Ikuskaritzak zer zerbitzu eman behar dituen. Jarduera horiek lau taldetan banatzen dira: kontrol-, ebaluazio-, aholkularitza- eta lankidetzeta-jarduerak.

Ikuskaritzak planifikatu behar ditu kontrol- eta ebaluazio-jarduerak. Planifikazio hori, hain zuzen, II. eranskinean jaso da. Eranskin horretan, jarduera edo azpiprozesuen atal hauek zehazten dira:

- Ikuskaritzak egin behar duen azpiprozesuaren edo jardueraren izena.
- Gauzatze-aldi aurreikusia.
- Azpiprozesuaren emaitza: txostenaren mota eta txostena emateko eguna.
- Azpiprozesua aplikatzeko eremua: azpiprozesua zer ikastetxetan edo erakundetan aplikatuko den.
- Azpiprozesua planifikatzeaz eta programatzeaz arduratuko den taldea edo pertsona.
- Ikastetxeetan jarduera hori zer ikuskarik gauzatu behar duten eta ikuskariek zer eremutan aritu behar duten: zonaldean, lurraldean edo erkidegoan.

Azpiprozesu horiek dokumentatu egin beharko dira, sistemaren agiriak kudeatzeko prozesuan ezarritakoa kontuan hartuta (0401 PR Dokumentazioaren eta Erregistroen kontrola).

Aholkularitza-jarduerak Hezkuntza Ikuskaritzaren ekimenez egiten dira, erreferentziazko ikastetxeetan egindako kontrol- eta ebaluazio-jardueren ondorioz edo, baita ere, ikastetxeen nahiz Hezkuntza Saileko beste zerbitzu batzuen eskariei erantzuna emateko.

Azkenik, lankidetzaz-jarduerak izan ohi dira Planeko jardura guztietan lan-karga handiena dutenak, eta beti Hezkuntza Ikuskaritzako zerbitzuen hartzailen eskaerei erantzuteko izaten dira.

Lankidetzaz-jarduerak honela sailkatzen dira:

- Lankidetzaz-eskaera konplexuei erantzuteko jarduerak (oso konplexuak direlako Ikuskaritzak jarduerok definitu eta planifikatzea eskatzen dutenak, gainerako azpiprozesuekin egiten den bezala).
- Hezkuntza Saileko arduradunek eskatzen dituzten txostenen ondorioz gauzatu behar diren jarduerak. Aipatu txostenak bi motatakoak izan daitezke: batetik, indarreko arauen arabera derrigorrezkoak direnak eta, bestetik, Hezkuntza Saila ez den erakunderen batek eskatu dituenak (Euskadiko Eskola Kontseiluak, Arartekoak, eta abarrek...). Atal horretan sartuko dira ikuskaritzako zeinahi hartzailak hala eskatuta egiten diren txostenak ere, bai eta ebaluazio-, kontrol- nahiz aholkularitza-jardueraren ondorioz Ikuskaritzak berezko ekimenez egiten dituenak ere.
- Parte-hartzeko edo lankidetzako eskaeren ondorioz gauzatzen diren jarduerak, betiere, ikuskaritza ez bada jardura horien jabe (adibidez: epaimahaiko kide izatea, batzorderen batean parte hartzea, EFQM ebaluazioak...). Gisa horretako jarduerak jardueren erantzule den organoak edo erakunde arduradunak landu dituen oinarrien edo argibide zehatzen arabera garatuko dira.

Aholkularitza- eta lankidetzaz-jardura horiek 0203 PR eta 0204 PR prozesuetan ezarritako orientabideen arabera garatuko dira.

Hirurteko Plan Nagusian (2008/2011) zehaztu dira Hezkuntza Ikuskaritzako aholkularitza- eta lankidetzaz-jarduerarik ohikoenak.

6. EUSKALDUNTZEA ETA EUSKARAREN NORMALIZAZIOA

2009/2010 ikasturterako Ikuskaritzaren Prestakuntza Planak zehazten duen langileen prestakuntzari eta euskalduntzeari buruzko 0303 PR. Programaz gain (IV. eranskina), eta euskalduntzearen hariari helduz, hauek jakinarazten dira:

- Ikuskaritza euskalduntzearen helburua da euskarak apurka-apurka gero eta presentzia handiagoa izatea ikuskaritzaren txostenetan eta, batez ere, Ikuskaritza Zerbitzuan egiten diren bileretan.
- Gehien erabiltzen den terminologia egokitu eta bateratu egingo da Ikuskaritzaren jakinarazpen eta txostenetan erabiltzen den euskararen kalitatea handitzeko eta Euskara Erabiltzeko Planak aurreikusten duen horretan aurrera jotzeko.

7. URTEKO PLANAREN EBALUAZIOA

Lurralde Arteko Batzordeak egingo du Urteko Plan honen betetze-mailaren kanpo-ebaluazioa eta jarraipena. Barne-ebaluazioa Lurraldeko Burutzek egingo dute, Zonako Burutzekin egiten dituzten koordinazio-bileretan eta, baita ere, Zonako Burutza bakoitzak bere zonako lantaldeekin egiten dituzten bileretan.

2009/10 ikasturtea amaitzean Urteko Plan hau ebaluatuko da. Horretarako, alderdi hauen analisiak eta ondorioak hartuko dira kontuan:

- Hezkuntza Ikuskaritzari egindako barne- zein kanpo-auditorien emaitzak. Eman diren prozesuetan nahiz zerbitzuetan gertatu diren desadostasunak, eta zuzentze- zein prebentzio-ekintzen egoera.
- Hezkuntza Ikuskaritzak eskaintzen dituen zerbitzuen hartzaileen iradokizunak, kexak eta erreklamazioak.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren barne- nahiz kanpo-hartzaileen gogobetetze-mailaren neurketak.
- Ikuskaritzaren jardueren hartzaileen beharrak, premia horiek hobeto asetzeko.
- Urteko Planean aurreikusitako prestakuntzaren eta aurreikusia izan ez arren gauzatu den prestakuntzaren eraginkortasuna.
- Urteko Planaren baitan burutu diren prozesu, azpiprozesu eta jardueretan lortutako emaitzak, prozesuak eta azpiprozesuak kontrolatzeko adierazleen panelaren bidez neurtuak.
- Indarrean den Urteko Planean proposatu diren kalitate-helburuen bidez lortu diren emaitzak.
- Ikuskaritzak egindako lanaren balorazio globala, eta Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren eraginkortasuna, Hezkuntza Ikuskaritzaren berezko jarduerak gauzatzekoan.

Sistema Berrikusteari buruz Ikuskaritza Nagusiak egingo duen txostenean agertuko da Urteko Plan honen ebaluazioa. Txosten horretan, gutxienez, alderdi hauek bilduko dira:

- Aldaketa-proposamenak, Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren gain, oro har, eta horren barnean, bereziki, Kalitateari buruzko Politikaren nahiz Kalitatearen Helburuen gain eragina izan dezaketenak.
- Helburuak bete izanaren eta prozesu- nahiz zerbitzu-adierazleen emaitzak.
- Barneko zein kanpoko auditorien emaitzak.
- Prozesuetan eta zerbitzuetan gertatu diren desadostasunak.
- Zuzentze- nahiz prebentzio-ekintzen egoera.
- Gogobetetze-mailaren neurketak.
- Iradokizunak, kexak eta erreklamazioak.
- Hobetzeko gomendioak.


- Ikuskaritzak egindako lanaren balorazio globala.
- Ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urriaren 19an

Ikuskari Nagusia



Izpta. Juan M^a Aztiria



II. ERASKINA

2009/10 IKUSKARITZA PLANAREN AZPIPROZESUAK APLIKATZEKO ZEHAZTAPENAK

0201 PR Ebaluazio-jarduerak.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu taldea	Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskatzaile en jarduera-eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
Ikastetxeen ebaluazioa										
0201 01	Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren ebaluazioa (KGS – Kalitatea Hezkuntzan).	3. hiruhilekoa	Ikastetx. txostena	12/04	KGS ikastetxeak	M. Bonet	C. Mediavilla A. Idígoras K. Totorikagüena J. A. Fernández	KGSn eskarmentua duten ikuskariak	EAE	
0201 03	Araubide orokorreko, araubide bereziko eta kiroleko irakaskuntzetako Prestakuntza Zikloen ikuskapena.	Ikasturte osoa	Ikastetx. txostena EAEren txostena	05/28 06/11	Heziketa-zikloak dituzten ikastetxeen lagina	J.A. Romero	K. Arriaga P. Bilbatua J. A. González J. M. Kortazar	Ikuskapenetan eskarmentua duten ikuskariak	Lurraldea	
0201 05	Diagnostiko-ebaluazioa	Ikasturte osoa	Lurraldek o txostena	06/11	Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikastetxeak	J. Granja	R. Juan M. Hidalgo A. Fernández G. del Río	Erreferentziako ikuskariak + ikuskari arduradunak	EAE	Ebaluazio-prozesuaren kalitate-kontrola eta hobekuntza-planak.

0201 PR Ebaluazio-jarduerak.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu taldea	Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskatzaile en jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
Irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioa										
0201 10	Zerbitzu-betekizunak.	2. eta 3. hiruilekoak	Banakako txostena	05/28	Guztiak	M. Bonet	M Bermeosolo I. Echeverria	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0201 11	Lanpostuaren perfilarekiko langileak duen egokitze-mailaren ebaluazioa	Ikasturte osoa, eskaeraren arabera.	Banakako txostena	Eskae raren arabera	Eskaera guztiak	J. A. Romero	Lurraldeko buruak	Ikuskari espezialistak	Lurraldea	
0201 12	Irakaskuntzan jarduteko gaitasunaren ebaluazioa	Ikasturte osoa, eskaeraren arabera.	Banakako txostena	Eskae raren arabera	Eskaera guztiak	J. Granja	Lurraldeko buruak	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0201 13	Praktiketako Funtzionarioen Ebaluazioa (OPE)	2. eta 3. hiruilekoak	Banakako txostena	06/30	Praktiketan dauden funtzionario guztiak	M. Bonet	M. Ruiz R. Mesanza P. J. Macho I. Cereceda L. Juan I. Erice	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0201 20	Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa	Ikasturte osoa		06/30	4 urtetan zuzendari izan diren guztiak	M. Bonet	M. Ruiz A. Fernández I. Cereceda I. Echeverria J.A. Ayucar	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	Azpiprozesuaren planifikazioa Ebaluazioa

0202 PR Kontrol-jarduerak.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaiza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu taldea	Azpiprozesua gauzatzea	Ikusatzailen jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
0202 02	Ikastetxeen Prestakuntza Proiektuen kontrola eta jarraipena.	2. eta 3. hiruhilekoak	Ikastetx. txostena	05/28	Onartutako ekintzak dituzten LHko ikastetxeen lagina	J. A. Romero	Lurraldeko buruak	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0202 07	Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programen kontrola eta jarraipena	Ikasturte osoa	Ikastetx. txostena EAEn txostena	05/28	Eskaera guztiak. Ikastetxeen lagina	J. Granja	Marivi García L. Barrutia J. . A. Otadui J. M. Guillén	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0202 08	Etxeko Arretako programaren kontrola eta jarraipena.	Ikasturte osoa, eskaeraren arabera.	Banakako txostena	Eskae raren arabera	Eskaera guztiak	Lurraldeko buruak	---	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0202 21	Curriculum desberdineko taldeen balorazioa eta kontrola	1. hiruhilekoa	Ikastetx. txostena	10/16	Ikastetxeen lagina	Lurraldeko buruak	---	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0202 24	Eskolatze Osagarriko Programen eskaerak baloratzea.	Ikasturte osoa, eskaeraren arabera	Banakako txostena EAEn txostena	Eskae raren arabera	Eskaera guztiak	J. Granja	Marivi García L. Barrutia J. M. Guillén	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	

0202 PR Kontrol-jarduerak.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu taldea	Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskatzaile en jarduera-eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
Haur-eskolak										
0202 40	0-3 urteko Udal Haur Eskolen eta Haur Hezkuntzako ikastetxe pribatuen kontrola eta jarraipena.	2. eta 3. hiruhilekoak	EAEren txostena Ikastetx. txostena	05/28	0-3 urteko eskola pribatuen eta publikoen lagina	J.M. Aztiria	J. Pérez J. Solabarrieta I. Cereceda I. Careaga A. Unamuno. A. Oianguren	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0202 41	Haurreskolen kontrola eta jarraipena.	2. eta 3. hiruhilekoak	Ikastetx. txostena	06/30	Haurreskola berri guztiak.	J.M. Aztiria	J. Pérez J Solabarrieta I. Careaga A. Unamuno. A. Oianguren	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
Ikastetxeen antolaketa eta funtzionamendua										
0202 50	Eskola Ekintzaren Agiriaren (EEAren) arau-kontrola.	1. hiruhilekoa	Ikastetx. txostena EAEren txostena	12/10 01/14	Ikastetxe guztiak	J. A. Romero	J. Pérez J. A. Sánchez J. L. Sabando J. A. Ayucar D. Mazuela	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0202 51	Talde eta ikasle kopuruaren kontrola.	Ikasturte osoa, eskaeraren arabera.	Ikastetx. txostena	Eskae raren arabera	Ikastetxeak, eskaeraren arabera	Lurraldeko buruak	---	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0202 52	Ikastetxeen dokumentazio eta administrazio-agirien kontrola eta azterketa	2. hiruhilekoa	Ikastetx. txostena	03/31	Ikastetxeen lagina	J. Granja	R. Fernández A. Salvador J.A. Rey J. A. Fernández	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	

0202 PR Kontrol-jarduerak.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaiza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu taldea	Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskatzaile en jarduera-eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
Ikastetxeen antolaketa eta funtzionamendua										
0202 53	Ikastetxe publikoetako irakasleen eta hezkuntza-langileen absentismoaren kontrola	Ikasturte osoa	Banakako txostena Lurralde- txostena	07/15	Ikastetxe publiko guztiak	J. A. Romero	J. Pérez J. A. Sánchez J. L. Sabando J. A. Ayucar D. Mazuela	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0202 55	Eskola-egutegiaren kontrola eta jarraipena.	3. hiruilekoa	Ikastetx. txostena	06/30	Ikastetxe guztiak	J. A. Romero	J. Pérez J. A. Sánchez J. L. Sabando J.A. Otadui J. A. Ayucar	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0202 57	AJA eta BAren kontrola	Ikasturte osoa	Ikastetx. txostena EAren txostena	06/30	Ikastetxe guztiak	J. M. Aztiria	P. J. Romero I. Tazón J.A. Fernández			
0202 59	Zuzendaritzako karguetarako izendapen-proposamenen kontrola	2. eta 3. hiruilekoak	EAren txostena	07/15 09/30	Ikastetxe publiko guztiak	M. Bonet	Marivi García P. Bilbatua J.A. Otadui X. Egizabal	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0202 60	Zuzendaritzaz besteko karguen izendapen-proposamenen kontrola	1. hiruilekoa	Ikastetx. txostena	10/30	Ikastetxe publiko guztiak	J. A. Romero	J. Pérez J. A. Sánchez J. L. Sabando J. A. Ayucar D. Mazuela	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	

0202 PR Kontrol-jarduerak.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu taldea	Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskatzaile en jarduera-eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
Curriculuma										
0202 71	Programazio didaktikoak ikuskatzea eta kontrolatzea.	1. hiruhilekoa	Ikastetx. txostena EAEn txostena	12/20	DBH, Batxilergoa eta Heziketa Zikloak dituzten ikastetxe guztiak	J. Granja	J. Grisaleña K. Mujika E. Valencia L. Puente	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0202 73	Curriculuma Norbanakoari Egokitzeko (CNE) eskaeren kontrola	1. hiruhilekoa	Banakako txostena	12/20	Proposamen guztiak	Lurraldeko buruak	---	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0202 74	Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako arautu gabeko prestakuntza-programen kontrola	1. hiruhilekoa	Banakako txostena	09/30	Eskaera guztiak	M. Bonet	D. Rabanal X. Etxebarria P. Carnicero	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
Irakasleak eta ikasleak										
0202 83	Euskara-salbuespenen kontrola	1. hiruhilekoa	Banakako txostena	12/20	Eskaera guztiak	J. Granja	C. Mediavilla L. Puente E. Valencia E. Berazadi I. Erice	Azpiprozesu taldeko ikuskariak	Lurraldea	
0202 84	DBHko Graduatu-proposamenen kontrola	3. hiruhilekoa	Ikastetx. txostena	07/15	Proposamen guztiak	Lurraldeko buruak	---	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	

0202 PR Kontrol-jarduerak.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu taldea	Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskatzaile en jarduera-eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
Irakasleak eta ikasleak										
0202 85	Irakasleen titulazioen kontrola	Ikasturte osoa, eskaeraren arabera.	Banakako txostena		PTko prestakuntza -eskaeren arabera	R. Fernández	B. Urkullu B. Manzarbeitia D. Mazuela	Azpiprozesu taldeko ikuskariak	Lurraldea	
0202 86	Ikasleen absentismoaren kontrola	Ikasturte osoa	EAEn txostena	07/15	Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikastetxe guztiak	I. Cereceda	Marina García L. Barrutia P. Carnicero	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0202 87	Ikasleen arteko larderiaren eta tratu txarren eraginaren kontrola eta jarraipena	Ikasturte osoa	EAEn txostena	06/30	Gertatzen diren ikastetxe guztiak	J. M. Aztiria	M. T. Ruiz L. Isasa E. Berazadi L. Torrealdai B. Manzarbeitia A. Fernández	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0202 90	Araubide orokorreko irakaskuntzetako emaitza akademikoen kontrola eta hedapena	1. eta 3. hiru hilekoak	EAEn txostena	09/30	Ikastetxe guztiak	J. A. Romero	J. A. Sánchez M. Bermeosolo	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0202 91	Ikastetxe publikoetako langileenganako eraso kasuen kontrola eta jarraipena	Ikasturte osoa	EAEn txostena	06/30	Gertatzen diren kasuak	J. M. Aztiria	Lurraldeko buruak	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0202 92	Langileen eta ikasleen lanuzteen kontrola	Ikasturte osoa	EAEn txostena	---	Gertatzen diren ikastetxe guztiak	Lurraldeko buruak	---	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	

0202 PR Kontrol-jarduerak.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaiza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu taldea	Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskatzaile en jarduera-eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
Irakasleak eta ikasleak										
0202 93	Akta akademikoen kontrola eta gainbegiraketa.	3. hiruilekoa	---	07/15	Ikastetxe guztiak	Lurraldeko buruak	---	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0202 94	Bizikidetzaren Planen kontrola eta jarraipena	2. eta 3. hiruilekoak	Ikastetx. txostena EAEren txostena	06/30	Bizikidetzaren Plana duten ikastetxe publikoak	J. M. Aztiria	M. T. Ruiz E. Berazadi L. Isasa A. Fernández B. Manzarbeitia L. Torrealdai	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0202 95	Enplegu publikoaren diziiplina-araubidea aplikatzea	Ikasturte osoa	Banakako txostena	06/30	Ikastetxe publikoak	M. Bonet	J.I. Molinuevo A. Anasagasti A. Paniago I. Bernaola	Ikuskari izendatuak	EAE	

III. ERANSKINA

IKUSKARITZA PLANAREN HELBURUAK ETA ADIERAZLEAK

2009/2010 URTEKO PLANAREN HELBURUA	HIRURTEKO PLAN NAGUSIAREN HELBURUA	XEDEA/IKUSPEGIAREN alderdia	EKINTZAK	KALITATE EZAUGARRIAK	ADIERAZLEA	ONARTZEKO RIZPIDEA	EPEA	ARDURADUNA
Kalitatea Hezkuntzan proiektuan parte hartzen duten ikastetxeak ebaluatzea	Ikastetxeak, zuzendarien funtzioa eta irakasleen funtzioa ebaluatzea	3. X.- Ikastetxeak, ikastetxeetako langileak eta ikastetxeen emaitzak ebaluatzea 6. I.- Ikastetxeak eraginkortasunez ebaluatzea.	0201 01 AZko jarduerak garatzea	Kalitatea Hezkuntzan proiektuan parte hartzen duten ikastetxeak ebaluatzea.	Ikastetxe ebaluatuen ehunekoa.	%100	10-mar-30	Ikuskaritza Nagusia
Zuzendarien eta irakasleen egitekoa ebaluatzea	Ikastetxeak, zuzendarien funtzioa eta irakasleen funtzioa ebaluatzea	3. X.- Ikastetxeak, ikastetxeetako langileak eta ikastetxeen emaitzak ebaluatzea 6. I.- Ikastetxeak eraginkortasunez ebaluatzea.	0201 20 AZko jardueren plangintza egitea 0201 20 AZko jarduerak garatzea	Zuzendaritza-funtzioaren lehendabiziko urtea ebaluatzea.	Zuzendari ebaluatuen ehunekoa	%100	10-ekain-30	Ikuskaritza Nagusia
Ikastetxeak gainbegiratzea: ikastetxeek indarreko arauak betetzen dituztela eta Hezkuntza Saileko programak eta proiektuak garatzen dituztela egiaztatzea	Ikastetxeetan indarreko arauak eta ikasturte hasierako ebazpenak betetzen direla egiaztatzea Hezkuntza Saileko programak eta proiektuak ikastetxeetan garatzen direla kontrolatzea	1. X.- Indarreko legeak betetzen direla kontrolatzea, aholkuak ematea eta informazioa eskaintzea.	Curriculumeko alorrak eta ikasgaiak emateko ordutegia kontrolatzea	Ikastetxeen lagina kontrolatzea.	Lagineko ikastetxe kontrolatuen ehunekoa	%100	10-mar-30	Ikuskaritza Nagusia
		2. X.- Kalitatezko hezkuntza-sistema lortzen lagundu	Irakasleen lanordueak kontrolatzea					
		5. X.- Hezkuntza-administrazioari hezkuntza-sistemaren funtzionamenduari buruzko informazioa ematea	Hezkuntza Saileko programen eta proiektuen garapena kontrolatzea					
Diagnostiko-ebaluzioak garatzen laguntzea, ikastetxeetako hobekuntza-planak gainbegiratzearen eta urteko proben aplikazioa kontrolatzearen bidez	Diagnostiko-ebaluzioetan parte hartzea eta ikastetxeen hobekuntza-planak gainbegiratzea	3. X.- Ikastetxeak, ikastetxeetako langileak eta ikastetxeen emaitzak ebaluatzea 6. I.- Ikastetxeak eraginkortasunez ebaluatzea.	0201 05 AZko jardueren plangintza egitea 0201 05 AZko jardueren plangintza egitea	Ikastetxeen hobekuntza-planak ebaluatzea.	Ikastetxe ebaluatuetako hobekuntza-planen ehunekoa	%100	10-mar-30	Ikuskaritza Nagusia
Hezkuntza saileko beste zerbitzu batzuekin lankidetzan aritzea ikastetxeetako hezkuntza-, hizkuntza- eta curriculum-proiektuen ereduak lantzeko.	Hezkuntza-komunitatearen eskubideak eta betebeharrak betetzen direla bermatzea, indarrean dauden arauekin bat etorritz.	2. X.- Kalitatezko hezkuntza-sistema lortzen lagundu						
Ikastetxeetan esku hartzea zuzendariek hautatzeko prozesuan irakasleek lehen baino gehiago parte har dezaten.	Ikastetxeak, zuzendarien funtzioa eta irakasleen funtzioa ebaluatzea	2. X.- Kalitatezko hezkuntza-sistema lortzen lagundu	Erreferentzia-ikusaria biltzea urte baterako izendatuak izan diren zuzendariekin.	Lau urteko arituko diren zuzendarien kopuruak gora egitea.	Lau urterako izendatuak izan diren zuzendarien ehuneko metatua	%50	10-uzt-01	Ikuskaritza Nagusia
			Ikastetxeko zuzendaritza proiektua lantzeko orientabideak, gidak eta ereduak banatzea.					
			Ikastetxerako zuzendari izateko hautagaiak bilatzea.					
Hezkuntza Ikuskaritzaren jarduna hartuko dutenen beharrak eraginkortasunez asetzeta.	Hezkuntza Ikuskaritzaren jarduna hartuko dutenen beharrak eraginkortasunez asetzeta, kanpoko naiz barruko hartzaileena	2. X.- Kalitatezko hezkuntza-sistema lortzen lagundu	Jarduerak garatzea administrazioaren aginduz.	Ikuskaritzak Administrazioaren eskaerak betetzea.	Erantzuna jaso duten eskabideen ehunekoa.	%100	10-uzt-30	Ikuskaritza Nagusia
			Bareko nahiz kanpoko web orria eguneratzea	Web orriak aldiro eguneratzea.	Gutxienez, hamabost egunean behin eguneratzen dira.	Hamabost egunean behineko	10-uzt-30	
			Ikuskaritza Planaren kudeaketaren aplikazioa ezartzea lurralde batean.	Ikuskaritza Planaren kudeaketaren aplikazioa ezartzea.	Lurralde batean ezarri da behintzat.	Z/G	10-apir-01	

(IKUSKARITZA PLANAREN HELBURUAK ETA ADIERAZLEAK)

2009/2010 URTEKO PLANAREN HELBURUA	HIRURTEKO PLAN NAGUSIAREN HELBURUA	XEDEA/KUSPEGIAREN alderdia	EKINTZAK	KALITATE EZAUGARRIAK	ADIERAZLEA	ONARTZEKO RIZPIDEA	EPEA	RESPONSABLE
Ikuskaritzaren lurralde-unitateen barne-antolakuntza hobetzea	ISO 9001:2000 egiaztagiria izaten jarraitzea, eta barne-antolakuntza nahiz -kudeaketa hobetzea.	4. I.- Taldean lan egitea, modu koordinatuan eta irizpideak bateraturik.	Kanpoko erabiltzaileei arreta eskaintzeko protokoloa lantzea eta, ondoren, ezartzea.	Kanpoko erabiltzaileak hartzeko protokoloa ezartzea.	Protokoloa epe aurreikusian ezartzea.	2010-01-30 baino lehen ezarria.	10-urt-30	Ikuskaritza Nagusia
Lurraldeko jarduera-planak lantzeko irizpideak batzea.			Lurralde-ekintzako planak lantzeko irizpideak batzea.	Irizpideei jarraiki planak lantzea.	Epe aurreikusian landu diren planen kopurua.	2009ko urriari 30 baino lehen	09-urr-30	Ikuskaritza Nagusia
Hezkuntza-komunitatearen eskubideak eta betebeharrak betetzen direla bermatu, indarreko arauekin bat etorri: AJA/ BA berriak kontrolatzea.	Hezkuntza-komunitatearen eskubideak eta betebeharrak betetzen direla bermatzea, indarrean dauden arauekin bat etorri.	2. X.- Kalitateko hezkuntza-sistema lortzen lagundu 4. X.- Hezkuntza-komunitatearen sektoreen eskubideak bermatzea. 3. I.- Hezkuntza-komunitateko kide guztiek –ikasleek bereziki– kalitateko hezkuntza izatera duten eskubidea bermatzea	0202 52 AZ jardueren plangintza egitea. 020252 AZ jarduerak garatzea	Ikastetxeetako AJA/BAK laginen bidez kontrolatzen dira.	Lagineko ikastetxe kontrolatuen AJA/BA ehunekoa	%100	10-ekain-30	Ikuskaritza Nagusia
UNE-EN ISO 9001:2008 arauarekin bat etorri Hezkuntza Ikuskaritzaren egiaztagiriak eguneratzea eta berritzea	ISO 9001:2000 egiaztagiria izaten jarraitzea, eta barne-antolakuntza nahiz -kudeaketa hobetzea.	4. I.- Taldean lan egitea, modu koordinatuan eta irizpideak bateraturik. 7. I.- Etorrizunari begira, hezkuntza-sistema hobetzeko prozesuan aitzindari izatea eta hezkuntza-sistemaren arazoak prebenitzea. 5. I.- Hezkuntza-komunitateak gizartearen errespetua eta aintzatespena lortzea. 1. I.- Hezkuntza-komunitateak funtzioak gauzatzea, irizpide teknikoekin eta kanpoko presioak bazter utzita	Ikuskaritza Planaren kudeaketa-sistema egokitzea UNE-EN ISO 9001:2008 arauri.	Plana kudeatzeko sistema UNE-EN ISO 9001:2008 arauri egokitzea.	Sistemaren dokumentazioa, UNE-EN ISO 9001:2008 arauri egokitua.	2009ko abenduaren 20az aurretik egokituriko agiriak.	09-abend-20	Ikuskaritza Nagusia
			UNE-EN ISO 9001:2008 araua betez, Ikuskaritza Plana kudeatzea.	Planaren kudeaketa berrikustea, UNE-EN ISO 9001:2008 arauan ezarritakoarekin bat etorri.	2009/2010 ikasturtean barne-auditoria egingo da	Auditoria egingo da 2010-03-01a baino lehen	10-mar-01	Ikuskaritza Nagusia
Ikuskarrien prestakuntza eguneratzea: diagnostiko-ebaluazioa, AJA/BAREN kontrolatzea, ikasketa nahiz administrazioko agiri berriak ezartzea; eta prestakuntza juridikoa nahiz administratiboa.	Urteko Planak gauzatzearen ondorioz gertatu diren beharrak oinarri hartuta, ikuskarrien prestakuntza eguneratzea	2. I.- Profesional ondo trebatuek, ondo informatuek eta jakintzak etengabe eguneratzen duten profesionalak osaturik egotea.	Ikuskaritza trebatzeko Urteko Plana lantzea.	Prestakuntza Planeko ekintzak bat datoz 2008/2011 Hirurteko Planean lehenetsi diren alderdiekin. Prestakuntza Planeko ekintzak aurreikusi bezala gauzatzea.	Prestakuntza Planean jaso eta lehenetsia duten alderdien ehunekoa. Ikasturtean barrena gauzatu diren jardueren ehunekoa.	%100 %90	09-urr-01 10-uzt-31	Ikuskaritza Nagusia Ikuskaritza Nagusia
Ikuskaritzako jakinarazpenetan eta txostenetan erabiltzen den euskararen kalitatea handitzea.	Euskararen erabilera sustatzea		Zehaztea eta ezartzea ikuskaritzaren ohiko idatzietan gehien erabiltzen diren euskal terminoak bateratzeko irizpideak edo urratsak	Ikasturte honetan, ikuskaritzak zenbait irizpide ditu bere idatzietako euskarak batasuna izan dezan (Ikuskaritzako euskararen eskuliburua).	Euskara erabiltzeko eskuliburua lantzea	Eskuliburua prest egon behar du maiatzaren 30a baino lehen.	10-maia-30	Ikuskaritza Nagusia
Ikuskarrien atzerriko hizkuntzako gaitasun-maila handitzen ahalegintzea	Urteko Planak gauzatzearen ondorioz gertatu diren beharrak oinarri hartuta, ikuskarrien prestakuntza eguneratzea		Erakundeek prestakuntzako jardueren plangintza egitea edo, bestela, pertsona bakoitzari gai honetan trebatzeko aukera ematea	Prestakuntza Plana garatzean zenbait trebakuntza-jarduerak gauzatzen dira, atzerriko hizkuntzan gaitasuna areagotzeko	Parte-hartzaileak atzerriko hizkuntzetan gaitzea xede duten prestakuntza-jardueren kopurua.	1>=	10-uzt-31	Lurralde Arteko Batzordea

IV. ERANSKINA

PRESTAKUNTZA PLANAREN EKINTZAK

PRESTAKUNTZA EKINTZAREN IZENA	HELBURUAK	JARDUERA EGITEKO ALDIA	Orduen kopurua	PARTE-HARTZAILEAK
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN AZPIPROZESUAK	Ikuskaritzaren lana egiteko dauden tresnak erabiltzeko behar den euskarri teorikoa eskuratzea, barneko web-orrian diseinatutako kontsulta-sistema eta ikuskaritzan diseinatu nahiz ezarri diren azpiprozesu guztiak erakutsiz.	2010EKO URTARRILA	2:30	IKUSKARI BERRIAK
ALDERDI JURIDIKOAK ADMINISTRAZIO-PROZEDURA: ALDERDI OROKORRAK.	Ikuskariak administrazio-prozeduraren eta euskal funtzio publikoaren esparru orokorrean gauzatu behar duen jarduera zehaztea.	2010EKO URTARRILA	2:30	IKUSKARI BERRIAK
IRAKASLEEN FUNTZIOAK ETA ERANTZUKIZUNAK DIZIPLINA ERANTZUKIZUNAREN EZAUGARRI NAGUSIAK.	Jakitea irakasleek jardutean beren obligazioak eta betebeharrak betetzen ez badituzte zer administrazio-prozedura aplikatu behar den.	2010EKO URTARRILA	5	IKUSKARI BERRIAK
ALDERDI JURIDIKOAK DIZIPLINA ESPEDIENTEAK GARATZEKO PROZEDURA EGUNERATZEA	Ikuskariak administrazio-prozeduraren eta euskal funtzio publikoaren esparru orokorrean gauzatu behar duen jarduera zehaztea.	2010EKO APIRILA	5	IKUSKARI GUZTIAK
EUSKARA IKUSKARITZAREN OHIKO IDATZIAN GEHIEN ERABILTZEN DIREN EUSKARAZKO TERMINOAK BATERATZEKO IRIZPIDEAK EDO ARAUAK EGUNERATZEA	Ikuskariek terminologiaz duten prestakuntza zabaltzea eta eguneratzea, ikuskaritzak egin ohi dituen idatzietan egokiena den terminologia erabiltzeko.	2009KO URRIA – 2010EKO EKAINA	5	IKUSKARI GUZTIAK

PRESTAKUNTZA EKINTZAREN IZENA:	HELBURUAK	JARDUERA EGITEKO ALDIA	Orduen kopurua	PARTE-HARTZAILEAK
EBALUATZEA ETA GAINBEGIRATZEA DIAGNOSTIKO EBALUAZIOA	Ikuskariak trebatzea hobekuntza-planak eta diagnostiko-ebaluazioari buruz ikastetxeek prestatzen dituzten txostenak ebaluatu ditzaten	2009KO IRAILA - 2010EKO EKAINA	15	IKUSKARI GUZTIAK
EBALUATZEA ETA GAINBEGIRATZEA IRAKASLEEN ETA ZUZENDARIEN FUNTZIOA EBALUATZEA	Irakasleen eta zuzendarien funtzioa ebaluatzeko teknikei buruz ikuskariek duten prestakuntza eguneratzea eta zabaltzea.	2010EKO APIRILA	5	IKUSKARI GUZTIAK
EBALUATZEA ETA GAINBEGIRATZEA GAITASUNAK PROGRAMAZIOETAN	Programazio didaktikoak gainbegiratzeko ikuskarien prestakuntza eguneratzea eta zabaltzea.	2010EKO URTARRILA	5	IKUSKARI GUZTIAK
EBALUATZEA ETA GAINBEGIRATZEA BITARTEKARITZAKO ETA GATAZKAK KONPONTZEKO TEKNIKAK.	Bitartekaritzaren esparruaren berri izan eta berorretan gaitasunak eskuratzea, ikastetxeetan ikuskaritzaren lana aurrera eramateko. Ikastetxeetan esku hartzeko estrategiak zein diren jakitea.	2010EKO OTSAILA- MARTXOA- APIRILA	5	IKUSKARI GUZTIAK
ARAUAK EGUNERATZEA	LOE EAEn garatu eta ezartzeko prozesua ezagutzea.	2009KO URRIA – 2010EKO EKAINA	10	IKUSKARI GUZTIAK
OINARRIZKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK	Ikuskari-talde bat oinarrizko aplikazio informatikoetan trebatzea: ACCESS.	2010EKO OTSAILA- MARTXOA- APIRILA	20	IKUSKARIAK LURRALDEKA
IKUSKARIEN V. JARDUNALDIAK	Hezkuntza Ikuskaritzaren berezko gaietan prestakuntza handitzea. Ikuskaritzaren lan-giroa hobetzea.	2010EKO MAIATZA ETA EKAINA	10	IKUSKARI GUZTIAK